

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarren 2023ko ekainaren 9ko erabakiaren laburpena: 2023ean Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan egindako obrak finantzatzeko dirulaguntza-deialdi publikoaren oinarriak onetsi dira**

BDNS (Identif.): 703433.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/703433>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeei jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek.

#### **Bigarrena. Helburua**

Vitoria-Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2023an egiten diren eraberritze obrek sortzen dituzten gastuei aurre egiten laguntzea da deialdiaren xedea, obra horiek ekipamenduen egoera hobetzeko, oinarriko hornidura jartzeko nahiz eraikinak Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legea eta hori garatzen duen 68/2000 Dekretura moldatzeko egiten direlarik ere.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrek 2023ko ekainaren 9an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 60.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

30 egun natural laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 14a

*Lurraldearen eta Klimaren Aldeko Ekintzaren Sailaren administrazio burua*  
**EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ**